

## KANPAINARAKO GAZTEENTZAKO OINARRIZKO ESKULIBURUA

“Zure ahalegina, denon atsegina”.

### 1. Sarrera (oinarriak).

- Gure ustez, konpromiso hitza “bidali gaituzten misioarekiko erantzukizuna” da. Gehiago IZAN, gehiago BALIO eta ONGIA gehiago EGITEKO misio horrek gure bizi-zentzuari eta koherentzia pertsonalari eragiten die, denon ongizateari egiten diogun ekarpena zalantzan jartzen du eta ahulenen alde ekiteko gonbita egiten digu. Gure konpromisoaren eraginez, mundu honek hobea izan behar du maila eta dimentsio guztietan.
- Jesusek berak adorea ematen digu: “Aukeratu zaituztet fruitua emateko, fruitu iraunkorra” (Jn 15,16), eta gonbita egin digu komunitatean ibiltzeko, munduan 'gatz eta argia' izanez, eraldaketa eraginez, senidetasun-sareak ehunduz, doakotasunean, entregan eta ahulenen alde bizitzeko, Jesusen estilora.
- Kristauen KONPROMISOA munduan IZATEKO eta EGOTEKO modua da, eta irteteko gonbita egiten digu gainerako pertsonekin topo egiteko, haien bizitzek "ukitu" egin gaitzaten eta gizon-emakume guztiontzako etorkizuna eraiki dezagun.

### 2. Bideoa.

2 minutuko bideoa da. Konpromisoari buruzko kanpaina esparrua aurkezten du. OneDrive Campañas izeneko karpetan gordeta daude, baina lotura ere erantsi da:

[KONPROMISOARI BURUZKO BIDEOA](#) GAZTELANIAZ

[KONPROMISOARI BURUZKO BIDEOA](#) EUSKARAZ

### 3. Abestia.

Otoitza motibatzen SKAIKETAN taldearen + MANU CHAO [LERRO HUTSEN ARTEAN](#).  
abestia entzutea proposatzen da.

*Tantas tierras en el mundo, tantos mares por nacer.  
Tanto viento en mi cabeza, tantas cosas por hacer.  
Tantos locos en un loco, cuántas malas por vencer.  
Tanto tiempo sin saber, la que algún día va a caer.  
Tanta gente sin saber, la que algún día va a caer.  
Tanta gente sin saber, la que algún día va a caer.*

*Hirian trafikoko gehiegi, ambulanzien sirena hotsek lagun  
baten bila  
entzun ez al dute? Presa jabe  
Txorien afoña, naturaren agonia, bortxatu dute ilargia  
Ta ez da entzun garraxia, eguerdian.*

*Zabaldu ditzagun ahoz aho lore bihurtutako istorio horiek  
Pantaila okupatu zutela kezko errezel ta lobbyek  
Jakingo al degu inoiz parabolak iraultzen,  
lerro hutsen artean egiak ezagutzen?*

*Hatza seinalatzen dezuela  
Ilargia dezue atzean*

Hay demasiado tráfico en la ciudad,  
¿es que no han oído las sirenas de la ambulancia en  
busca de algún amigo/a? La prisa manda.  
La afoña de los pájaros,  
la agonía de la naturaleza,  
Han violado a la luna  
y no se ha oído el grito al mediodía.

Que corra la voz, divulguemos esas historias convertidas  
en flor  
Que las pantallas fueron ocupadas por los lobbies y las  
cortinas de humo  
¿Aprenderemos alguna vez a revolucionar esas  
parábolas?  
¿A conocer la verdad que se esconde entre líneas vacías?

Tenéis a la luna detrás,  
mientras señaláis al dedo.

## 4. Otoitza.

Bideoko sentrazioak eta abestiaren proposamena jasoko ditugu, gure otoitzerako.

Jesus, ez daukazu eskurik.

Gure eskuak baino ez dituzu

Justizia jaun eta jabe izango den mundua egiteko.

Jesus, ez daukazu oinik.

Gure oinak baino ez dituzu

Askatasun eta maitasunaren bidea egiteko.

Jesus, ez daukazu ezpainik.

Gure ezpainak baino ez dituzu

Munduari berri onak eramateko.

Pobreen Berri Ona.

Jesus, ez daukazu baliabiderik.

Gure ekintza baino ez daukazu

Denok anaia-arrebak izan gaitezen lortzeko.

Jesus, zure Ebanjelioa gara,

Jendeak irakur dezakeen Ebanjelio bakarra,

Gure bizitzak ekintza eta hitz eraginkorrak izango bac

Jesus, eman iezaguzu zure maitasun eta indarra

Zuk egindakoarekin jarraitzeko

Eta denei zure berri emateko.



## 5. Dinamika

Hirihandiren lur-azpian barneratuko gara. Bertan daude gainazalean gertatzen den ororen azalpenak. Hiri azpitik ibilbide bat egingo dugu, gure bidaia-lerroak zeintzuk diren jakiteko. Nondik mugitzen garen ikusita, gure inguruan eta urrutirago ere zer gertatzen den ulertuko dugu. Orri bat banatuko dugu. Alde batetik, metrokoaren planoak agertzen da eta bestetik galdetegi bat, "Hirihandiko metroaren norabidea" proposatzen duena.

Metro honetan lau linea daude.

### 1. linea. Aberastea.

Trazadurak euro forma dauka. Gure gizartean amestua eta desiratu da linea hori. Pertsona askok amesten dute linea horretan bidaiatzearekin. Lehen mailako bagoiak ditu eta bidaia oso eroso da. Lineako geltokiak: Boterea – Errentagarritasuna – Diru-gosea – Gutizia – Lehiakortasuna – Hainbeste eduki, horrenbeste balio izan – Aberastea

## 2. linea. Kontsumismoa.

Linearen trazadurak erosketa-gurdi baten forma dauka. Oso erabilia da. Bagoiak beti doaz gainezka eta nasak beteta egoten dira, nahiz eta trenak minuturo gelditu, eguneko 24 orduetan. Linea honetako geltokiak honakoak dira: Beharrizanak sortzen dizkirate – Beharrizanak sortzen ditut – Erostea plazera da – Erabili eta bota – Gero eta behiago behar dut – Markako arropa daukat – Estatus soziala – Xahutzea.

Larrialdiko kasuetarako, bide azkar konpulsibo bat dauka Eskaintza, Beherapen eta Ordaintzeko erraztasunak geltokietan gelditzen dena.

## 3. linea. Ni.

Linearen trazadurak ni hitzaren forma dauka. Lineako geltokiak: Zeurekoikeria – Indibidualtasuna – Nirekin – Neu – Neure – Ni – Nirekin – Azalekoa – Berehala nahi dut – Axolagabetasuna – Ongizatea.

## 4. linea. Caritas

Trazadurak bihotz forma dauka. Lineako geltokiak: Jaunartzea – Parte-hartzea – Aniztasuna – Doakotasuna – Anaitasuna – Konpromisoa – Boluntariorza.

“Inkestatik” abiatuta bakarka apur bat lan egin ondoren, ekarpen pertsonal guztiak partekatu ditzakegu.

Gure bizitzan ditugun balioez kontziente izaten hasten gara. Metro sarearen azpian gertatzen denak hirian dauka eragina. Jokoa jartzen ditugun balioek gure jokabideak, gure harremanak egiteko moduak, gure bizimoduak eta gugandik gertu eta ez hain gertu dauden pertsonenak baldintzatzen dituzte.

Caritasek metroaren 4. linean bidaiatzea proposatu nahi digu, geltokietan zehar ibili eta eremu partekatu eta global bat eraikitzearen aldeko apustua egitea; babesgabetasun egoeran dauden pertsonak ere itxaropena aurkitu eta biziaren zentzua berreskuratzeko aukera izan dezaten.

## 6. Ekintza proposamena.

Talde gisa, egin dezakegu zerbait anaitasuna, konpromisoa eta doakotasuna aintzat hartuko dituen balioak dituen gizartea lortzeko? Eta maila pertsonalean?

Gizarte berri hori eraikitzeko pistak eman ahal dizkiguten proposamen batzuk jaso ditugu. Badakigu nire ahalegina, gure ahalegina, denon atsegina dela.

### - **ERREALITATEAREN IKUSPEGI KRITIKOA LANDU.**

Horretarako, bilatu bestelako informazioa, erabili komunikabide txikiak, espezializatuak (horietako asko digitalak), komunikabide handien artean ezkutuan geratzen den informazio kritikoa eskaintzen dutenak; esaterako: Ahaztutako gatazkak, produktu batzuen ekoizpenaren atzean dauden lan eta ingurumen baldintzak, pertsona babesgabeenen bizi baldintzak eta abar.





## KONTSUMO ARDURATSUA EGITEN SAIATU.

Gure ohiturak gizarte, lan edo ingurumen izaerako gai orokorrekin lotuta daudela konturatzea. Erosi eta kontsumitzen ditugun produktuen atzean dauden lan, gizarte eta ingurumen baldintzen inguruko informazioa jaso eta horretan pentsatu.

Ez erosi behar ez dugun gauzarik.

Objektuak eta arropak birziklatu eta berrerabili.

Botatzen dugun elikagai kopurua eta sortzen dugun hondakin kopurua ahal beste murriztu. Ingurumena errespetatzen duten produktuak erostea. Bidezko merkataritzako produkturen bat erosi.

- **ENPATIA LANTZEA:** Pertsoneri errespetuz begiratu, begiak eta belarriak ireki inguruan dagoen sufrimenduaz ohartzeko, elkartasunez elkarri laguntzeko ahal duguna eginez.
- **INDIBIDUALTASUNA GAINDITU:** Gure mundutik harago joan, gure ondoan daudenekin egon, elkarbizitza eta elkarrizketa sortu...
- **EKITALDI, EKINTZA ETA DEIALDIETAN PARTE HARTU:** Bakarka zein taldean zuen auzoan edo hirian martxan dauden ekimen komunitarioak ezagutu eta parte hartzeko modua aztertu: Círculos del silencio, Munduko arrozak, BesteBik deitutako kontzentrazioak, pobreziaaren aurkako nazioarteko eguneko jarduerak (urriak 17); auzoan, herrian, eskualdean egiten diren beste ekimen komunitario batzuk.
- **ESTEREOTIPO ETA AURREIRITZIAK GAINDITZEKO KANPAINA ETA ESTRATEGIAK EZAGUTU.**

ARGI IBILI – NO TE ENCALLES Bilboko Elizbarrutiko Caritas burutzen ari den estrategia bat da. Helburua etorkinei buruzko estereotipo eta aurreiritziak alde batera uztea da.

ZURE AURREIRITZIAK BESTEEN AHOTSAK DIRA. Ijitoen aurkako aurreiritziak bertan behera uzteko helburua duen kanpaina, Secretariado Gitano Fundazioarena.

GAUZAK EZ DIRA DIRUDITENA. Egin diezaiogun aurre arrazismoari. Irudi batzuk ikusi eta gure ustez bertan agertzen diren pertsonen zein lanbide duten esan behar dugu. Esperimentu horren bidez erakutsi dute gauzak ez direla diruditena.

EMAKUNDEREN KANPAINAK. Balio aldaketen aldeko sentsibilizazio kanpainak, gure gizarteko genero rola eta estereotipoak ezabatzeke.

HORMA APURTU. UNICEFen kanpaina bat da. Horren bidez, milaka haur etorkinek Europara heltzeko bidean aurkitzen dituzten oztopoen gaineko hausnarketa proposatzen da.

ZURE BABESA BERE ATERPE. Caritas Bizkaiaren sentsibilizazio estrategia errefuxiatuei harrera duina egitearen alde, pertsona horiekiko konpromisoa adieraziz, jatorrizko herrialdeetan zein bidean daudenean.

## 7. Itxiera

Pertsona bakoitzari galdetu ahal zaio: Labur-labur esan, zer ekarpen egin dizu topaketa honek? Eta abestia berriz entzun edo berriz ere otoitza denon artean irakur dezakegu.

# INKESTA

Hirihandiko metroaren zuzendaritzak eskerrak eman nahi dizkizue galdetegi hau betez parte hartzeagatik. Lortutako emaitzek gure zerbitzuen funtzionamendua hobetzen lagunduko digute. Mesedez, izan zintzoa galdera hauei erantzutean:

- 1) Metroko zein linea erabiltzen duzu hiritik zehar mugitzeko?
- 2) Ba al dago inoiz egon ez zaren geltokiren bat? Zergatik?
- 3) Zeintzuk dira gehien ibiltzen zaren geltokiak?
- 4) Zein geltoki dira gutxien atsegin dituzunak?
- 5) Zein geltoki dira gehien atsegin dituzunak?
- 6) Zein lineatarako erosiko zenuke abonua bat horretatik bakarrik bidaiatzeko?
- 7) Ba al dago Hirihandiko zerbitzutik kenduko zenukeen linearen bat?
- 8) Geltoki berriren bat gehituko zenuke? Zein lineatan?

# Metroaren plana Hirihandi

